



EUSKAL ENPLEGU SISTEMAREN LEGE-AURREPROIEKTUA EGITEKO PROZEDURA HASTEA EBAZTEN DUEN BIGARREN LEHENDAKARIORDE ETA LAN ETA ENPLEGUKO SAILBURUAREN URTARRILAREN 28KO AGINDUAREN ZUZENKETA

Bigarren lehendakariorde eta Lan eta Enpleguoko sailburuaren 2022ko urtarrilaren 28ko Aginduak hasiera eman zion Euskal Enplegu Sistemaren Lege Aurreproiektua izapidetzeko prozedurari.

Arauaren testua egitean, izenburuaren nomenklatura aldatu egin da: Euskal Enplegu Sistemaren Lege Aurreproiektua izena izatetik Enpleguaren Euskal Legearen Aurreproiektua izena izatera igaro da.

Arauaren izenburuaren aldaketa hori Alfonso Gurpegi Ruiz Enplegu eta Gizarteratze sailburuordeak hartu zuen, egungo formulazioan Legea Euskal Enplegu Sistemaren antolamendutik askoz harago doalako. Enplegu-zerbitzuen eskatzaileei aitortutako eskubide-sorta oso bat arautzen da, ulertuta enplegu politika guztien oinarrian dagoen lan duinaren nahiak berekin ekarri behar dituela pertsonen enplegararritasuna hobetzeko prestazio zehatz eta galdagarriak.

Horrenbestez, nomenklaturaren aldaketa horren arabera, Euskal Enplegu Sistemaren Lege Aurreproiektuari buruzko edozein aipamenek izen berrira jo behar du.

Vitoria- Gasteiz, 2022ko ekainaren 6a

IDOIA MENDIA CUEVA

BIGARREN LEHENDAKARIORDE ETA LAN ETA ENPLEGUKO SAILBURUA

Donostia - San Sebastian, 1 – 01010 VITORIA-GASTEIZ

